

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Canvas-ekin jarraituz, gauzatu beharreko hurrengo atala “Funtsezko sozietateak” da. Ezagutzen dugun bezala, enpresa garrantzitsuak negozioa zuzentzeko aukera emango digute bazkideetara iristea. Egingo ditugun aliantzak gure negozio eredua optimizatzen lagunduko digute, arriskuak murriztuko ditugu eta baliabideak eskuratuko ditugu. Hiru puntu hauetatik, baliabideak eskuratzea izango da gure ideia nagusia bazkideak lortzerakoan.



Gure produktuari dagokionez, enpresa garrantzitsuenak ingurumena edo natura eta birziklatzearekin bat datozen enpresak dira. Enpresa hauek birziklatzearen eta naturaren gaian ezagutza handia daukate eta gure enpresarako laguntza handia izango da. (Ecologia Reciclaje y Medio Ambiente SI , Sasieta...)

Hauekin negozio eredua optimizatu eta baliabideak eskuratu ditzakegu. Enpresa hauekin gure produktua edo ideia partekatzen badugu, bazkideetara iristeko orduan enpresa hauen laguntza garrantzitsua eta handia izango da.

Gure produktua saltzeko, enpresa garrantzitsuenak publizitate enpresak dira. Horrelako bazkideekin baliabide berria eskuratzea lortuko genuke, publizitatea. Eta horri esker, merkatua zabaldu eta bezero berrietara iritsi gaitezke. Azken finean, gure produktua bezeroengana iristeko gakoetako bat publizitatea da. Eta horrela, beste bazkide mota bat aurkitu ditzakegu.

Enpresa txiki baten hasieran gaudenez, publizitate enpresen bitartez ezin dugu gure proiektua ikusarazi, orduan, sare sozialen bitartez hasiko gara gure proiektuaren publizitatea egiten, ezagutzara batera eramaten...



Hortaz, bi bazkide mota ditugu: Bat, enpresen bitartez lortuko duguna, gaian sartuta daudenak eta ezagutza bat dutenak. Eta bi, publizitatearen bitartez, gaiari buruz gutxi edo ezer ez dakitenak. Baina, bazkide guztiak gure enpresa bezalaxe helburu berdina dute; naturari laguntzeko birziklatzea.

